

Torrealdaik Arana Martijaren lekukoa hartuko du Euskaltzaindian

BILBO. Euskaltzaindiak izendatu du Jose Antonio Arana Martijaren ordezkoa, eta gernikar baten ordezkari beste gernikar bat aukeratu du, aurrerantzean Joan Mari Torrealdaik beteko baitu zeregin hori. Euskaltzale, kazetari eta idazle gernikarra izango da Euskaltzaindikoko Bibliotekari eta Azkue Bibliotekako batzordeko buru berria, ondo dakiela Torrealdaik zein saltsatan sartzen den, Arana Martijaren lagun eta lankidea izan baita urte luzetan. Bigarren erabaki bat ere hartu du Akademiak, Miren Azkarate Argitalpen batzordeko kide izendatu baitu.

Aurreko ostiralean egindako osoko bilkuran hartu ziren erabakiak. Arana Martija euskaltzaina joan den hilean hil zela eta, berak utzitako hutsartea betetzeko hautagairik egokiena hautatu zuten. 'Jose Antonio Arana Martijaren segida hartzea ohore bat da niretzat', zioen atzo Joan Mari Torrealdaik, 'lagun handia nuen, kuttuna, eta elkarrekin egin izan ditugu bibliografia kontu ugari, zaletasun hori konpartitzen genuelako'. Euskaltzain oso izendatu zuten Torrealdai 2007an, eta orduan ere Arana Martijak eman zion erantzuna kazetari gernikarraren sarrera-hitzaldiari (Bibliografiatik bibliotekara, zelan ez).

Ohorea bai, baina karguak ardura ere eskatzen du: 'Arana Martijak markatu zuen bidea, nik apur bat lagundu niola, eta bide hori jarraituko dut aurrerantzean, baina gure eginkizuna garbia da: zerbitzu on bat ematea gizarteari, eta, horren barruan, Euskaltzaindiak dituen lanen digitalizazioa sartzen da, hain zuzen orain egiten ari garena'. Jakin aldizkariaren zuzendariak Euskaltzaindiak azkenaldian eginiko lan bibliografikoa aipatzen du, gogoratuz euskarri berrien aldeko apustua ez dela oraingoa: 'Akademiak Zuzendaritza Batzorde moderno eta jakituna dauka, eta papera eta digitalizazioa uztartzen da aspalditik. Aurrerantzean ondo ikusi behar dena da zer atera paperean eta zer bestelako euskarrietan'.

Jose Antonio Arana Martija Euskaltzaindikoko Bibliotekaria eta Azkue Bibliotekako batzordeko burua izan zen, 1995etik. Era berean, Akademiako Argitalpen batzordeko kide ere bazen, 1989tik. Torrealdaik ondo baino hobeto ezagutzen ditu arlo biak, baina aurrerantzean lehenengoko atalari erreparatuko dio gehienbat. Euskaltzaindikoko Bibliotekariari dagokio, besteak beste, Akademiaren liburu, esku izkribu eta gutunak gorde eta kontserbatzea eta Azkue Bibliotekaren organo gorenaren buru izatea, eta horren guztiaren ardura hartuko du Torrealdaik.

Joan Mari Torrealdai Foruan (Bizkaia) jaio zen, 1942ko azaroaren 24an. Teologian, Gizarte Zientzietan eta Informazio Zientzietan lizentziatua da, eta Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea. 1977az geroztik landu duen lan bibliografikoak bi alor nagusi ditu: batetik, liburua bera gizarte adierazle gisa ulertuta liburugintzaren azterketa, eta, bestetik, liburuen katalogoa, fitxa bibliografikoz osatua.

Bestelako aldaketa bat ere egin zen pasa den asteko batzarrean, Miren Azkarate izendatu baitzuten Argitalpen batzordeko kide. Argitalpen batzordeari dagokio argitalpen guztiak programatzea eta onartzea. Era berean, argitalpen bakoitzaren prestakuntza, berezitasunak, nondik norakoak, epeak eta bestelako xehetasunak ere jarraitu eta zaintzen ditu. Miren Azkarate Donostian jaio zen, 1955ean. Euskal Filologian katedraduna da, EHUKo irakaslea. Euskaltzain oso izendatua 1992ko apirilaren 24an. Gramatika batzorde eta Hiztegi Batuko batzorde ahaldunduko kide da.